

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko apirilaren 12a. IX. urtea. 2.576. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Emakumeen bizitza pertsonal, sozial eta profesionalaz ariko da, Garcia Ribas

‘Emakumea Lidergoa’ jardunaldia Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institututuko IKASTN zerbitzuak antolatu du; 60 ikasleko taldea osatu dute «aurreikuspenak» betez **02**

Amasa-Villabonako eta Tolosako Sortu alderdi berriak, aurkezteko bidean

Amasan, bihar, aurkeztuko dute alderdi politikoa; Tolosan, herritarren parte hartzea bultzatzeko kanpaina jarriko dute martxan **05**

Leitzako Udalak «herriarena den ondasuna» herriari itzultzea eskatu du

Azken urteetan Eliza hainbat ondasun higiezin erregistratzen ari dela salatzen du Nafarroako Ondarearen Babeserako plataformak; horien artean Leitzako eliza eta basiliza **06**

Hondakinen bilketa sisteman «inposiziorik ez dagoela» esan du Galder Azkuek

Amasa-Villabonako Udala eztabaida irekiak egiten ari da; alkateak dioenez, «argi azaldu zen hauteskunde programan ez dugula errauste plantarik nahi; ez dugu azpikorik erabili» **04**

IPEDRAN VAZDANI

Agurtzane Belaunzarán Kazetaria eta bidaiaria

«Asiak maitemindu egin nau, kontraste handiko lurraldea da, eta lasaia»

Kazetari berrobotarrak bost hilabeteko bidaia egin berri du Asiako Ekialde Urrunean; lagun argazkilariarekin batera, istorio ikusgarriak bizitu ditu, eta hauek erreportajeen bidez kontatzeko aukera izan du **07**



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrerak** ditu

Sariduna:
Mikel Mendizabal

LAGUN ARO GBC
Cajasol
saskibaloia partida

Apirilak 14 • Igandea
12:00
Donostiako Ilunbena



sarrerak



Emakumeen dohainak kudeatzeko estrategien bila

‘Emakumea Lidergoa’ jardunaldia antolatu du Ikastn-ek, eta Carmen Garcia Ribas izango da hizlaria

I. Urkizu

Gizarteko estereotipoak irauli, eta emakumeen bizitza pertsonal, sozial nahiz profesionalean beren talentua eta dohainak kudeatzeko tresnak eskainiko ditu, gaur, Carmen Garcia Ribas adituak, Tolosaldea GLHIko Ikastn zerbitzuak antolaturiko Emakumea Lidergoa jardunaldian.

Besteak beste, idazlea, kazetaria eta komunikazio irakaslea da Carmen Garcia Ribas, eta gaur egungo gizartean emakumezkoak duen jokabide eta rolaaren analisisan egin dituen ekarpenengatik ezaguna da. Hau guztia, gainera, Emakumea Lidergoa (*Liderazgo Femenino*) izena eman dion kontzeptuaren barnean bildu du, hiru saiakera idatzita: 2006an *Tengo miedo* argitaratu zuen, 2007an *El síndrome Maripili*, eta azkenik, *Miedo a ser* argitaratu zuen 2008an.

Taldean hausnartuz

Bost orduko saioa izango da gaurkoa, eta Garcia Ribasek bere ibilbidean bildutako hausnarketa eta edukiak izango ditu hizpide.

Taldeka bilduko dira parte hartzaileak, eta egoerak praktikan jarri nahiz hausnartu egingo di-

tuzte, hizlariak proposaturiko gaien eta tresnen inguruan.

Saioaren amaieran, berriz, Emakumea Lidergoa jardunaldiko parte hartzaile guztiek test moduko bat egingo dute, norberaren gaitasun maila identifikatuz eta garatu beharreko arloak hobetzera bideratutako tresnak nabarmenduz, beren dohainak kudeatzeko.



Carmen Garcia Ribas idazlea, kazetaria eta komunikazio irakaslea da, eta jardunaldia gidatuko du. HITZA

Gemma Zelaia • Tolosaldea GLHIko IKASTN zerbitzuko arduraduna

«Inoiz ez da berandu izaten ikasteko»

I. Urkizu

Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuko IKASTN zerbitzuak antolatu du Emakumea Lidergoa jardunaldia, eta Gemma Zelaia da arduraduna.

Gizarte eredu eta estereotipoak aldatze horretan, zehazki zein helburrekin antolatu duzue egitasmoa?

Batetik, emakumeek beren proiektu pertsonal zein profesionalak kudeatu ahal izateko ingurune bat sortzea da helburua. Hori lortzeko, beharrezkoa da emakumeek jokabide estrategikoak ezagutu eta erabiltzea, eta baita euren ondarea kudeatzeko formazio emozionala, intelektuala, ekonomikoa, eta antzekoak ja-

sozteak ere. Finean, jokabide exekutibotik, edo agintzen dizutena egitetik, jokabide estrategikora, hau da, komenigarriena egitera, jauzi egiteko bidea zehaztuko du jardunaldiak.

Lanerako estrategia bereziki landuko dute, biharko saioan, beraz.

Bai. Estrategiarako komunikazioaren trebakuntzak giltzarrietako bat izango dira; konbentzitzeko, sinestazteko eta hainbat inguru liluratzeko, jarrera, lengoia eta emozioak erabiltzen ikasi behar baita. Hau guztia, tradizionalki estilo maskulinoko espazioak kudeatzen ikasteko baliagarria izango da.

Arrakasta izan duzue.

60 ikasleko taldea biltzea zen gure aurreikuspena, eta bete dugu. Itxaron zerrendan, gainera, 41 ikasle daude, eta jardunaldia gerturatu ari den heinean, kopurua gorantz doa. Ehundik gora lagunek interesa erakutsi digute, eta, oro har, balorazio positiboa egin dugu harrerari dagokionez.

Zein da Emakumea Lidergoa jardunaldian parte hartuko dutenen adin-media

Gazteenak 28 urte ditu, eta helduenak, berriz, 59. Batzbesteko adina, beraz, 41 urtekoa da. Parte hartzaile gehienak gipuzkoarrak dira. Bizkaitarrak eta arabarrak ere etorriko dira, eta Zaragozako emakume batek eman du izena.

Emakumearen jardun profesionalari begira antolatu duzen lehen egitasmoa da?

Ez. Ikastn-en 7. ikasturtea da hau. Ibilbide honetan, emakumeen arlo pertsonal, sozial nahiz profesionala garatzeko prestakuntza eskaini dugu, IK Tetan, adimen emozionalean, merkatarien jardunean, eta abar.

Helduei formakuntza eskaintze horretan, emakumeek gabezia gehiago dituztela nabaritzen duzue zuek?

Gabeziak baino, oztopo gehiago dituzte emakumeek.

Bizi osorako hezkuntzan, zein da zuen lan egiteko modua?

Eskualdeko eragileekin, eta bere-

ziki prestakuntza eta enpleguko eragile publiko zein pribatuekin elkarlanean aritzen gara, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako baliabideak koordinatzeko; Lan talde honek Eskualdeko Ikaskuntzako Kontseilua du izena. Jardun honetan, herritarren bizi-tzan izan ditzaketen zailtasun nahiz beharrei erantzuteko jarduerak berritzaileak diseinatzen saiatzen gara, besteak beste. Honen guztiaren inguruko informazioa, gainera, teknologia berrien bitartez ere ematen dugu, www.ikastn.com ataritik.

Zein da zuen egitasmoetan parte hartzen duten herritarren profila?

Askotarikoa da. Gero eta gehiago dira, gaztaroan hezkuntzarik jaso ez zutenak, eta orduan egin ez zutena orain egiten ari direnak. Inoiz ez da berandu izaten ikasteko. Era berean, krisiak bultzatuta ere herritar asko etortzen dira.

Aurrera begirako proiekturik izango duzue esku artean, noski.

Maiatzean esaterako, bi hitzaldi antolatu ditugu, Euskal Herriko Unibertsitateko Raul Ibañezen eskutik. Matematikak, irakas-kuntza eta hedabideak izango dira hizpide. Honez gain, eskualdeko gazte langabetuei zuzendutako informazio eta prestakuntza kanpaina diseinatzen ari gara, eragileekin.

www.inmosalbide.com



SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Baserria berri berria. 125m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berriua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m² ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin, haurrak zaindu edota bese-telako lanetarako, esperientziadun eta gidatzeko baimena duen emakumeak bere burua eskaintzen du. 600 52 21 33.

Autobus gidaria. Edozein lanetarako, esperientziadun eta autobus gidatzeko baimena duen gizonak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

✉ Gutuna

Joxan Lizarribarri, esker onez

Lerro hauen bidez, Adunako Udalak, Adunako talde eta elkarteek, eta Adunako herritarrek esker ona eta egindakoaren aitortza egin nahi diogu Joxan Lizarribarri, eta elkartasuna adierazi nahi diegu bere familiakoei eta lankideei, une gogor hauetan.

Egun hauetan asko azpimarratu dira Joxanek *Berria*-n eta beste zenbait tokitan euskaren sustapenaren alde egindakoak. Gu horren lekuko izan gara, eta aurrez aurre ikusi dugu horietan ez ezik, Refractorios Kelsen enpresaren bertan ere euskara sustatzearen alde egin dituenak: Euskara Batzordea osatuz, enpresako idatziak euskaratuz, langileen artean euskararen aldeko motibazioa bultzatuz...

Eredua emanez, argi erakutsi digu euskaraz lan egin daitezkeela, nahiz eta kate bateko lanategia izan eta kanpokoekin asko lan egin behar izan. Adunako Udalak lan-munduan euskararen erabilera bultzatzearen alde egin zuenean ere, oso erantzun ona jaso zuen Joxanen aldetik, eta elkarlanerako prestutasun osoa azaldu zigun.

Horrez gain, biziki eskertu behar dizkiogu Adunakultura eta kirola bultzatzearen alde egin dituenak. Herriko talde eta elkarteek beti jaso dute bere laguntza jaietan bestela antola ezin zitezkeen ekintzak antolatzeko, Gorostidi Harria eta antzeko ekimenak egiteko, aurtengo ikasturtean abian jarri den Txulobi pilota elkartearen ataratzeko... Ez dugu ahaztuko herriaren alde egindako guztia.

Gogoan izango dugu, halaber, herritarrek kontuan izatea langileak kontratatzearen garaian. Lan-eskaintzaren bat sortu denean, beti jakinarazi dio udalari, bando bidez herriaren berri zabaltzeko. Estimatzekoa da jarrera hori izatea, eta herritarren alde horrela egitea.

Eredugarria izan zara guretzat, eta jarrera ireki eta abegitsuarekin hartu gaituz beti. Askok ikasi dugu zuek, eta umezurtz geratu garen arren, ea zuk landatutako hazia indartzea eta behar bezala zaintzea lortzen dugun denon artean.

■ **Adunako Udala, (herri eragile eta herritar guztien izenean).**

Larramendi auzoko Arkaute etxearen bi gela egokitzen ari dira auzolanean

Larramendi Bizirik auzo elkartearen deialdiari erantzunez egiten ari dira lanak; asteburuan ere berriro ariko dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoan urriaren egindako festen arrakasta ikusi eta gero, Larramendi Bizirik auzo elkartearen berehalakoa hasi ziren lokalaren beharra zegoela komentatzen. «Batetik, jaietarako erabilitako materiala gordetzeko, eta, bestetik, jaiak antolatzeko garaian sortu zen lankidetzaren giroari jarraipen bat eman ahal izateko», zehaztu dute. Udalak Arkaute etxearen, lehen Gurutze Gorrriaren egoitza zena, behe solairuko bi gela utzi dizkie, eta hauek auzolanean hasi dira atontzen.

Lokalarentzako leku egokiena pentsatzerakoan, elkartearen Arkaute etxea zuten buruan. «Udalaren jarrera, hasieratik borondatea agertu bazuen ere, ez zegoen oso argi. Hiru solairutako etxebizitza izanik, beste elkarte edo talderen batekin banatzeko proiektua zuten eskuartean», azaldu dute Larramendi Bizirik-etik. «Azkenean, Abastoseko lokalak martxan jarri eta beste elkarte eta taldeak bertan bildu zirela ikusirik, behe solairuko bi gela erabiltzeko baimena eman zigun udalak. Gure aldetik, beste elkarte edo taldeei ateak zabaltzeko konpromisoa hartu genuen».

Gelak «nahiko txukun» zuden, baina zenbait konponketa egiteko beharra zuten: pertsianak konpondu, paretetako zuloak estali eta hezetasunak konpondu, margotu, markoak eta zokaloak jarri, lanparak, sotoa txukundu... Elkartetik azaldu dutenez, «hasieratik argi utzi zigun udalak ez zegoela berritzeko dirurik». Hortik abiatuta, elkarteak bilera deitu zuen *Auzolanean tiraka guztiok dugu zer eman eta zer jasotzeko aukera* lelopean. «Auzotarrak informatu genituen, lokalaren eskaera tramitazioa egin zela eta zeintzuk ziren baldintzak. Bilera berean auzotarraren proposamenak eta iradokizunak jaso genituen».

«Modu naturalean»

Hurrengo bilera batean jasotako proposamenak hainbat lan taldeetan banatu zituzten: «Denetik irten zen, umeentzako ludoteka, dantza taldea, sukaldaritza ikastaroak, mendi taldea, zine proiektuak, yoga klaseak, festa batzordea, eskulan tailerra... Egia esan, erabat ilusionatu ginen eta era



Orain arte hogei lagun inguru elkartu dira berritze lanetan aritzeko Arkaute etxean. HITZA



Besteak beste, Arkaute etxearen paretak ari dira konpontzen. HITZA

berean auzotarrak ilusioz beterik ikusi genituen».

Gauzak horrela, lokalaren egokitzapena beharrezkoa zela adostu zuten, eta hori auzolanean egitea «modu naturalean» gauzatzeko joan dela azaldu dute elkartetik: «Bat margolaria dela, bestea arotza izandakoa, besteak soldatzeko makina duela, eta gainontzekoen laguntzeko prestutasunarekin, lanean hasiatek erabaki genuen».

Deialdia «Aste Santuan eginik eta Pazko Astearen jende asko kanpoan zela kontutan harturik, balantze positiboa egin dezakegu», azaldu dute. «Denera hogei bat pertsona bildu gara lau egunetan zehar, egunero bost bat pertsona elkartu garelarik».

Larramendi Bizirik auzo elkartearentzako aipagarrienak «elkar lanean sortutako giro jatorra eta auzolanean modu desinteresatzen zuten, umeentzako ludoteka, dantza taldea, sukaldaritza ikastaroak, mendi taldea, zine proiektuak, yoga klaseak, festa batzordea, eskulan tailerra... Egia esan, erabat ilusionatu ginen eta era

gazte bat gerturatu zitzaigun, zertan ari ginen galdetu eta ondoren gurekin etorri zen lanera. Benetan aberasgarria da auzotar gutxiontzat izango den horrelako gune batean lanean aritzea».

Hurrengo deialdia asteburu honetarako egin dute. Gaur, 17:00etatik 21:00etara egongo dira, eta bihar eta etzi, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Hurrengo astearen lan taldeak finkatzeko eta inaugurazioa prestatzeko bilerak egingo dituzte.

«Auzotar gutxiontzat irekia»

Elkartearen asmoa maiatzak 4erako dena prest edukitzea da eta inaugurazio ekitaldia prestatzea. «Horretarako ahalik eta auzotar gehien laguntza beharrezkoa dugu. Bai lanerako, garbiketarako egiteko, atontzeko eta baita ere ekintzak prestatu eta koordinatzeko», esan dute. «Inaugurazio ekitaldia ez dugu oraindik zehaztu, baina hainbat ideia jaso ditugu: haur jokoak, musika eta janaria izango dira ziur. Auzotar guztiak gerturatu daitezzen gonbita egiten dugu».

↓ Deialdia

Asteburu honetan elkartuko dira berriro auzolanean Arkaute etxeko bi gelak berritze lanak egiteko.

- **Gaur, apirilak 12.** 17:00etatik 21:00etara.
- **Bihar, apirilak 13.** 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.
- **Etzi, apirilak 14.** 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Arkaute etxea nola banatuko den eta zer erabilera izango duen ez dagoela elkartearen esku azaldu dute. «Oso etxe handia da eta gauza asko egin daitezke. Gure esku beheko solairuko bi gela ditugu, eta oraingoz horiek kudeatzeko baimena besterik ez dugu», zehaztu dute elkartetik.

Bi gela horiei zer erabilera emango dioten finkatzeko, Larramendi Bizirik auzo elkarteko batzorde burua berritzeko asmoa dute: «Orain arte lanean aritu bagara ere, uste dugu, auzo lokala kudeatzeko modurik egokiena auzotar guztiak ordezkatuko dituen auzo elkarte edukitzea dela».

Larramendi Bizirik-etik azaldu dutenez, «argi dugu auzotar gutxiontzat irekirik egongo den gune bat izango dela eta horretarako auzotar guztien parte hartzea beharrezkoa dela deritzogu. Auzolanean aritzeak elkar ezagutzeko aukera ematen digu, elkarren arteko konplizitate sortzen du eta auzotarren arteko elkarbizitza hobetzen du». Elkartearekin harremanetan jartzeko *larramendi-bizirik@gmail.com* helbidera idatzi daitezkeela esan dute.

Galder Azkue: «Hondakin bilketa zikinik ez dago, guk egiten ditugu zikin»

Hondakinen kudeaketan «kontzientziario falta nabarmena» dagoela esan du Amasa-Villabonako alkateak

Mikel Iraola Amasa-Villabona

«Gizarte moduan arazo larri bat dago birziklapenari dagokionean». Horixe izan zen, atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruan, herritarren kezka, galdera eta kritikak entzuteko udalak antolatutako eztabaida irekian Galder Azkue, Amasa-Villabonako alkateak ondorio gisa botatakoa.

Hezkuntza eta kontzientziario arazoez ari zen, amasa-villabonatar batek, eskoletan, umeekin lan-keta bereziren bat egin behar ote zuten galdetu ondoren: «Udalak bere esku dagoen guztia egiten eta egingo du, baina askok ez dute behar bezala birziklatzen. Igande arratsaldeetan zenbait plaza ikusi besterik ez da. Hori ez da udalaren edo eskolaren bitartez ikasten, etxean baiziki».

Kontzientziario eta garbitasunari lotuta, zaborrez gainezka zeuden edukiontzia eta lurreen botata zeuden zabor-poltzak ageri ziren argazkiak erakusten ari zela, atez ateko sistema zikina dena diotenei mezu bat bidali zien Azkuek: «Ez dago sistema zikinik, gure jarrerak egiten ditu zikin».

Atez ateko sistema aukeratzearan arrazoiak –alkatearen esanetan– birziklapen tasa altuena bermatzen zuela izan zen: «Hasieran berdin zitzaigun, atez atekoa, ala bostgarren edukiontzia izan. Esan nahi dudana da ez dugula kapritxo egin. Guk birziklapen tasa txarrak aldatu nahi genituen, eta hainbat azterketa kon-



Galder Azkue atez atekoari buruzko azalpenak ematen Gurea Antzokian. M. IRAOLA

tsultatu ostean, eraginkorrena atez ateko sistema zela ondorioztatu genuen. Esango baligute bostgarren edukiontziarekin tasa hobeak lortuko genituzkeela, ba, aurrera. Baina ez da horrela».

«Inposizioa ez, inplantazioa»

Atez atekoa ezartzea inposizioa dela diotenentzat ere zer esana izan zuen Azkuek: «hauteskunde programetan argi azaldu genuen ez genuela errauste plantarik nahi gure inguruan, ezta beste inon ere, eta atez atekoaren alde egingo genuela. Beraz, ez dugu azpikorik erabili».

Hauteskunde horietan gehiengoa lortu zuen Bilduk, beraz, «inposizioa izan ez dela» berretsi zuen: «Bozka eman zigutenek bazekiten zeren aldeko apustua egingo genuen. Gehiengoa lortu genuen, eta horrek esan nahi du herritarren konfiantza daukagu-

la aldaketa hori aurrera eramateko. Beraz, ez da inposizioa izan, inplantazioa baiziki».

Bilketa sistema berria abian jarriko zutela adierazi zutenetik aurrera sortutako eztabaida politikoa penatuta azaldu zen alkatea. «Guk ere zer ikusia izango dugu horretan, baina Euskal Herritik kanpo ados jartzeko gai diren alderdiekin ezin izan dugu adostasun batera iritsi hemen. Gaurko eztabaidara etortzeko gonbita zuten, baina nahiago izan dute inkomunikazioa jarraitu, eta horrek ez dio mesederik egiten inorri».

Epe luzeko onurak

Eztabaida politikoan gehiago sakondu gabe, atez atekoak, herriari onurak ekarriko dizkiola adierazi zuen Azkuek. «Gaur egungo sistemak 150.000 euroko defizita sortzen dio udalari. Atez atekoa ere in bilketa garestiagoa da jende

eta baliabide gehiago suposatzen dituelako, baina luzera konpentatu egiten da, gastuak murriztu egiten direlako, eta diru-sarrerak handitu».

Alkatearen esanetan, udalak 400.000 euro gutxiago ordaindu beharko dizkio mankomunitateari. «Usurbilen esaterako, urtean, 120.000 euro gutxiago kostatzen da sistema berria». Gainera, beira, ontziak eta paperaren birziklapen tasak handituko direnez, tratamendura bidaltzeagatik diru gehiago jasoko du udalak.

Dena den, herritarrek hondakinak biltzeagatik ordaintzen duten 80 euroko tasa igotzera behartuta daudela esan zuen alkateak: «Ez dugu igoko bilketa sistema berriagatik, duela urtetatik defizita daukagulako baiziki». Dena den, konposta egiten duenak, hoberiak jasoko dituela aurreratu zuen alkateak.

→ Laburrak

Igandean kantujira izango da Asteasun

ASTEASU » Usarrabi Abesbatzak antolatuta, kantujira izango da igandean herriko kaleetan zehar. 11:30ean bilduko dira kantuzaleak Aiztondo Elkartearen, eta jan-edanein ekin ondoren, 14:30ak bitarte arituko dira kantuan.

Jon Beldurgabea antzerkia, igandean, haurrentzako

AMASA-VILLABONA » Hurren bideratutako *Jon Beldurgabea* antzezlanaren eskainiko dute Aitor Fernandez eta Alfonso Diez clown-ek, igandean, Gurea antzokian. Grimm anaien ipuin klasikoaren egokitzapena da. Ikuskizuna 16:30ean hasiko da, eta 15:45ean irekiko dira ateak. Sarrearen prezioa lau eurokoa da haur zein helduentzat.

Baserritarren eta kultura batzordeen bilerak

ZIZURKIL » Internazionalismo eta kultura batzordearen bilera izango da astelehenean Zizurkil behoko Atxulondo Kultur etxean, 19:00etan. Bestetik, Baserritarren batzordeak ere batzara egingo du, 21:30ean, udaletxean.

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia Anoetan

ANOETA » Datorren asteartean, Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren duten Emakumeen Elkarteak, hitzaldia antolatuko du bularreko minbiziaren inguruan. Bertan, minbiziaren arrazoiak azterketaz, tratamenduz edota prebentzioaz mintzatuko da Donostia Onkologikoko Arrate Plazaola medikua. Hitzordua 18:00etan izango da pleno aretoan.

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82
www.arriaran.com

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

UZTERRE KALEA
SAN JUAN PLAZA
LARRAMENDI KALEA
TOLOSA

DONOSTIA S.S.
GASTEIZ-VITORIA

ALDI BATERAKO SARBIDEA
ARRIARAN GASOLINDEGIRA, NORABIDE GUZTIETARA JOATEKO AUKERAREKIN ACCESO PROVISIONAL A LA ES. ARRIARAN, CON POSIBILIDAD DE ACCEDER A TODAS LAS DIRECCIONES

TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN GASOLINAZ GORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaitez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

Euskal Kantagintzari erreposoa emango dion kontzertua gaur Anoetan

Andoni Tolosak, gaur egungo musikaren bilakaera eta nortasuna ulertzeko klabeak emango ditu emanaldian

M. Iraola Anoeta

Andoni Tolosa *Morau* bakarlarri hernaniarrak, euskal kantagintzari erreposoa emango dion kontzertua eskainiko du gaur, Anoeta-

tako Itzuli tabernan, 23:00etan. Kontzertua, doakoa izango da.

1961etik 1990. urtera bitarteko hainbat kantu, bideo, argazki eta bestelako deskubritu ahal izango dira emanaldian zehar. Aro horretan, euskal kantagintzaren ezaguerri nagusiak ezagutzera emango ditu Tolosak, orduz geroztik, euskal musikan txertatu direnak. «Gaur egungo musikaren bilakaera eta haren nortasuna ulertzeko klabeak eskaintzen ditu kontzertuak» dio musikariak.



Tolosako Sortu osatzen duten kideak, batzarrean. HITZA

Sortu alderdi politiko berria gizarteratze bidean, Tolosan eta Amasa-Villabonan

Amasan bihar egingo dute Sorturen aurkezpen ekitaldia, 12:00etan, kultur etxean

Asier Imaz

Tolosako Sortu alderdiak bere sorrera iragarri du, eta Amasa-Villabonakoak, herritarren aurrean aurkezpen ekitaldia egingo duela azaldu du, larunbat honean Amasan, eta apirilaren 20an, Villabonan.

Lau hilabeteko eztabaidaren ondoren eratu zen Sortu alderdia Euskal Herrian. Ezker abertzalearen barruan kokatzen den antolakundeak, nazio mailako izatera dauka. Lan taldeak herriz herri, eskualdeka, lurraldeka eta nazio mailan sortu dituzte. Tolosan, «gaztetasunaren indarrarekin eta ilusioarekin tolosarren alde borrokatzeko prest» daudela iragarri dute. Helburu horretan, herritar guztien parte hartzea beharrezkoa dela azpimarratu dute: «Horretarako, Sortzaileak egitea animatu nahi dugu tolosar oro. Sortzaileentzako gune ezberdinak eratuko ditugu herrian: eztabaida gunea, aldizkari ofiziala, deialdiak eta garrantzitsuena deritzoguna, zuen iritzia kontutan edukitzeko konpromisoa Tolosako herri programan».

Herritarren parte hartzea bul-tzatzeko, *Ni Sortzailea naiz, eta zu?* kanpaina jarriko dute abian, eta deialdiei adi egotea eskatu diete tolosarrei.

Sorturen lan esparrua bi eremutan kokatu dute tolosarrek:

«Alde batetik, instituzioetan eta bestetik kalean, azken honek garrantzia berezia izanik». Kalean, eragile sozialekin, sindikatuekin, gazte eragileekin eta oro har, lanean ari diren eta lanerako prest dauden herritar guztiekin batera lan egin nahi dutela aitortu dute, «gauzagarriak diren alternatibak denen artean martxan jarri eta justuagoa izango den jendarte bat eraikitzeko», esan dute Sortuko kideek.

Sorturen oinarri ideologikoak, ildo politikoa eta antolakuntza eredua *Zutik Euskal Herria* adierazpena ardatz duen eztabaidan finkatu direla esan dute Tolosako Sortutik, eta helburu estrategikoak, Euskal Herri independentea, sozialista, feminista eta euskalduna direla gaineratu dute.

Amasan, bihar aurkezpena

Amasa-Villabonako Sortuk bere burua aurkezteko asmoz, apirilaren 13an, bihar, Amasako Kultur Etxean ekitaldi xume baterako deia egin die herritarrei. Ekitaldia 12:00etan izango da, eta bi hel-

buru edukiko ditu: «Ezker abertzalearen baitan sortu dugun antolakunde berria osatzen dugun kideak aurkeztea, eta etorkizunari begirako erronkak aurkeztea, otsailean Baluarteen Sortuk finkatu zituen erronkak bermatzeko zeregina geure eginaz».

Amasan egin bezala, Villabonan apirilaren 20an egingo dute aurkezpen ekitaldia, 20:00etan, Bear Zana pilotalekuan. Ondoren, herri afaria egingo dute, eta dagoeneko txartelak salgai jarri dituztela azaldu dute, Iratzar tabernan.

Amasa-Villabonatik ez dute ahaztu nahi izan Sortu Bilduko kide ere badela, eta ondorioz, «Udal gobernuaren ardura dugun neurrian, herritarren kezka eta dena delakoak entzun nahi ditugu. Argi baitugu denon artean dela soilik posible Amasa-Villabona berri eta aurrerako bat egitea», esan dute.

Azkenik, Amasa-Villabonako Sortu, eragile desberdinekin aldebiko harremanak garatzen hasia dela esan dute.



Diktadura pairatu zuen udal korporazioa omenduko dute

Mikel Errazkinen 'Memoriaren izenak' liburuaren gaztelarazko bertsioa aurkeztuko dute, bihar, 12:00etan

A. Imaz Tolosa

Aste Kultural Errepublikanoaren barruan, bihar, Mikel Errazkinen *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945 Guerra Civil represión franquista y conculcación de los derechos humanos* liburua aurkeztuko du Tolosako udale-

txean. Bestalde, Francoren diktadurak kargugabetutako korporazioari eta udal langileei eskainitako plaka bat bistaratuko da udal-etxearen atarian.

Memoriaren izenak liburuaren gaztelarazko bertsioaren aurkezpen ekitaldia, 12:00etan hasiko da, eta aurrez, 11:30ean, Errazkinen lana erosteko aukera egongo da, 20 euroren truke. Aurkezpen eguna izaki, %20ko deskontua egingo dutela azaldu dute udal-etik.

Aste kulturala Tolosako Foro Errepublikanoak eta udalak antolatuko dituzte elkarlanean.

→ Laburrak

Maiatzaren leian txekor jatea egingo dute

BALIARRAIN > Maiatzaren leian txekor jatea antolatuko dute Baliarrainen. Txartelak 25 eurotan jarri dituzte salgai Zartagi tabernan, hilaren 24a bitarte. Aurrez, 10:00etan, Aramako lore zaina egongo da herrian, eta 13:00etan, herri kirol proba egingo dute. Bazkaria herriko frontoian egingo dute.

Bartolome Deunaren kalea, bi egunez itxita

AMEZKETA > Bartolome Deunaren kalean obrak hasiko dira hilaren 15ean, eta bi egunez, Bionetetik Abaltzisketarako bidegurutzerainoko zatia itxita egongo da. Bizilagunei autoak Beartzaneko aparkalekuan uztea eskatu diete udal-etik, eta autobus zerbitzuek, eskolakoak eta ohikoak, geltokia plazan izango dutela aipatu dute.

Berria Txapelketaren kanporaketa, Beotibarren

TOLOSA > Apirilaren 14an, igandean, Tolosako Beotibar pilotalekuan Berria Txapelketaren kanporaketa jokatuko da Aurrea Saiatz eta Amurrioren artean. Pilota partidak 10:45ean hasiko dira.

Ugarteko elkartearen eskutik, sagardotegira

AMEZKETA > Ugarte auzoko bizilagunek irteera egingo dute bihar, Astigarragako Petritegi sagardotegira, Ugarteko elkar-teak antolatuta. Belaunaldi desberdinetako auzotarrak elkartuko dira txangoan, eta Ugartetik 12:30ean irteera egingo da, 18:30ak inguruan itzultzeko.

Aurten noraino?

Tolosako herriak, gure etate garaioan, 2013ko irailaren 12an egongo da. Euzkoaren, 3.200 urte geroz, bizi izan daiteke. Aurrerantz, herri guztiek gure aurrerantz.

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

Herria, Tolosa, Villabona, Zuzenki eta URMAN Tolosako udal herriak: Aduna, Ansoa, Argia, Albas, Amurrueta, Baratzaga, Bera eta Orosa.

Elizak «herriarenak diren ondasunak» herriari itzultzea eskatu dute

Nafarroako 50 herrik, tartean Leitzak, salatu dute Elizak Nafarroako 1.087 ondasun erregistratu dituela

Iñigo Terradillos Leitza

Elizak egin duen Nafarroako hainbat herritako ondasun higiezin inmatrikulazioa salatu du Nafarroako Ondarearen Babeserako Plataformak. Dagoeneko 50 udalerrik egin dute bat plataformaren eskariarekin, hau da, ondasun horiek herriari itzultzea. Herri horien artean dago Leitza.

Leitzako kasuaren adibide liranteke bertako eliza eta basiliza. Juan Mari Barriola Leitzako Udaleko zinegotziak azaldu duenaren arabera, 1500 eta 1600 urte ingurutik badira elizaren nagusitasuna udalarena zela frogatzen duten dokumentuak. «Leitzako Udalak elizaren obra ugari ordaindu zituela frogatzen da, eta baita, udalak zuela abadea aukeratzeko eskubidea». Antza, eliza nahiz basiliza azken urteetan erregistratu du Nafarroako artzapezpikutzak bere izenean.

Tafallako zinegotzi bat jabetza batzuk erregistratzen joan izanaren ondorioz oharatu ziren 2007. urtean Nafarroako herri askotako 1.087 ondasun erregistratuak zituela artzapezpikutzak. Horrela sortu zen Nafarroako Ondarearen Babeserako plataforma. Egun 50 udalek egin dute bat plataformaren eskariarekin, eta kopuru hori handitzea espero dute, orain ari baitira mozioak onartzen herrietan.



Leitzako eliza bere izenean erregistratu du Elizak. HITZA

1946. urtean onartu zen hori egitea ahalbidetzen duen legea. Horren bitartez, Elizak bere izenean erregistratu ditzake aurrez erregistratu gabe dauden eta Elizak erabiltzen dituen ondasunak. Geroago lege hori bertan behera geratu zen, baina Jose Maria Aznar Espainiako presidente zelarik legea indartu zuten. Bada, lege hori eskuetan duelarik, azken urteetan, Nafarroako artzapezpikutzak Elizak erabiltzen dituen Nafarroako ondasunak erregistratu ditu.

«Europar beste inon ez»

Barriolak dioenez, «orain arte, herriarenak kontsideratu izan dira herriak berak eraikitakoak izan diren maisuaren etxea, apeztekoa, elizak, basilizak, herri lurrak... Eta inori ez zitzaion bururatu horiek inoren izenean erregistratzea». Leitzako zinegotziak salatzan duenez, «Elizak ondasunak bere izenean erregistratu eta

gero aukera izan du nahi duen guztia egiteko horiekin, saltzeko eta negozioa egiteko, esaterako».

«Herritarrenak diren ondasunak jabetzeaz gain», Nafarroako Gobernuak Elizari diru laguntzak ematea ere salatu dute plataformatik. «Horrelakorik ez da beste inon gertatzen Europa osoan. Europar normalean herriarenak edo estatuarenak dira ondasun horiek», dio Juan Mari Barriolak.

Bada, Nafarroako Ondarearen Babeserako Plataformak Nafarroako Gobernuari ondasunen erregistro hauek ahalbidetzen dituen legea indargabetzea eskatzen dio. Era berean, ondasunen inguruko informazioa eman dezala eta Elizari ekonomikoki ematen dion laguntzen herri ematea ere eskatzen dio.

Herritarrei eta udalei, berriz, salaketa publiko horretara atxikitzea eskatzen diete plataformako kideek.

Gutunak

Atez ate eta bosgarren edukiontzia edo errauste planta

Dagoeneko ez da albiste atez atekoa hondakinak ondoen sailkatuta biltzen dituen bilketa eredu dela. Hainbat herrialdetan aurrera daramatena eta Espainiako eta Europako agintari batzuk txalotu eta zorian dudu.

Atez ateko sistema ez da hain deserosoa, ez zikina eta ezta beste sistemak baino garestiagoa ere.

Baina ni beste erreflexio batzuk aurkeztera nator. Atez ateko bilketaren ordez bosgarren ontzia edo errauste planta bultzatuz Tolosaldea Txukun izeneko plataforma bat aurkeztu dute herri batzuetan. Garbi dago plataforma honen atzean, aurrean, eskuinean eta ezkerrean EAJ-PNV dagoela.

Hauek bultzatzen duten eredu bai dela eroso (dena ontzi batean bildu eta zuzenean errauste plantara botatzea) eta zikina. Inguruko kilometro askotan gaitz larriak sortzen dituen eta gordetzen zailak diren hondakin kimikoak ere sortzen dituen.

Hau guztia gutxi balitz, baita oso garestia ere. EAJ-PNV ez dago hondakina sailkatuta biltzearen alde, eta errauste plantara martxan nahi duela bistakoa da. Saiatuko da Zubietako errauste planta egiten, behar duen zabor guztia bosgarren ontzian sartuz eta ezin izango balu lortu, garbi dauka, hemen (Gipuzkoan) sortzen den zabor guztia Bizkaiko errauste plantak behar duela funtzionatzeko.

Bukatzeke, zoriondu egin nahiko nituzke, Gipuzkoako Foru Aldundiaren plana eta baita atez ateko bilketa martxan jarria duten herri eta herritarrak ere. Gure eredu baitira. Eta animatu nahi nituzke, eredu hau martxan jartzera goazen herri eta herritarrak. Gipuzkoa eta Euskal Herri garbi-garbi bat lortzen lagunduko dugulako.

■ **Joxe Mari Urkola Roteta.** Anoeta-ko Sortuko Kidea.

Kontzientzia, koherentzia eta kontraesanez, bi hitz

Ingurumenaren gaian, beste gai askoren artean, kontzientzia izatea edo irabaztea eta koherente izatea, zaila eta kontraesanez bete izaten da askotan. Gogoan dut orain hamasei bat urte, hamalau urte nituela edo, Ibarako Kultur Etxean AHTaren aurkako asanbladaren hitzaldi batean izan nintzela edota Ibarako Gazte Asanbladatik auzolanean herriko erreka gar-

bitu genuela edota egin nahi zuten bialaren aurka mobilizatu eta berau ez egitea lortu genuela. Urte hauetan guztietan, AHTaren aurkako mobilizazioetan parte hartu dugu, ibilbide laburretan bizikletaz mugitu gara, garraio publikoa erabili dugu, bertako produktuak kontsumitu ditugu (garraio distantzia gutxiago, CO eta CO2 gutxiago kontsumituz...). Gehiago egin genezakeen, garraio pribatua gehiegi erabili dugu, goizetan dutxa laburrago bat hartu, bertako produktu gehiago kontsumitu, kontraesanak azken batean.

Mundu mugatua dugu eta euskal herritarrok bi mundu behar harko genituzke egiten dugun oinatz ekologikoa tarteko. Gure ondorengoei gaur egun dugu gutxienez uzteko betebeharrak etikoa dugu. Hondakin arloan ere, aspalditxotik birziklatu dugu; ez nahi adina, ezin izan dugulako, baina bai ahal genuena. Beti ere ez, hor beste kontraesan bat.

Errauste planta egin behar zutela jakin genuenean, nahiko urrun sumatu genuen, gure ingururan egin behar balute beste kontu bat izango balitz ere. Errauste planta, izugarriko aurkaria duen eta gutxi kutsakorra den munstroa. Gero eta zabor gehiago behar duena errentagarria izan dadin. Horrek ez al digu axola? Urteetan zehar, hondakin arazoaren aurrean begiak itxi ditugu eta dagoeneko arazoa hemen eta orain dugu.

Bakoitzaren kontzientzia eta koherentzia non dagoen bakoitzak jakingo du. Nire uste apalean, askok eta askok ingurumenaren arazoan inguruan ezikusiarena egin dute eta orain esfortzu txiki bat eskatzen zaienaren eskua burura eramanez eta berekoikeriz jokatzeko ari dira. Birziklatzearen alde denok omen gaude, praktikan urte hauetan guztietan oso gutxi birziklatu dugu. Bosgarren edukiontzia alternatiba bezala aurkezten dute, egon den herrietan emaitza kaskarrak eman baditu ere. Arrazoi gutxi eta ke asko!

Bakoitzak jakingo du zer egiten duen. Gutxienez informatu, aukera guztiak baloratu eta orduean aukera horren alde jokatzea proposatzen dizuet. Nik, neure kontraesan guztiakin egin dut aukera, auzokondepostea eta atez ateko bilketa sistema da gipuzkoarentzat eta euskal herritarrentzat onena. Behingogatik, alternatiba erreal bat dugu mahai gainean. Europak ere babesten duena. Guregatik, gure munduagatik eta gure ondorenguegatik, izan kontzientea eta koherente!

■ **Mikel Ozaita.** Ibarra.

Huyck Wangner-eko zuzendaritza eta langileak elkartuko dira gaur

Ikuskaritzarekin eginiko bilera nahiz Batzar Orokorretako agerraldia «positiboak» izan dira langileentzat

I. Terradillos Zizurkil

Bigarren Enplegu Erregulazio Espedienteak aurkeztu zutenetik gaur izango dute hirugarren bilera Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako langile batzordeak eta zuzendaritzak. Donostiako Pre-

son bilduko dira 12:00etan bi aldeak. Mikel Zabaleta ELA sindikatuko ordezkariek azaldu duenez, ez du «aldaketa handirik» espero enpresarengatik, «agian, kalte ordainetan igoeraren bat sartuko dute, baina ezer gehiagorik ez».

Bestalde, Zizurkilgo enpresako langileek bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten atzo. Batetik, ikuskaritzarekin bildu ziren, eta bi aldean arteko akordioak ez badago langileen aldeko txostena egingo duela baieztatu zuen. Zabaletak adierazi duenaren arabera, «prozedura juridikoan garran-

tzitsua izan daiteke hori, nolabaitko babesa eman baitiezaioko langileei».

Bestetik, Gipuzkoako Batzar Orokorretan agerraldia egin zuen atzo Huyck Wangner lantegiko langile batzordeak. Zabaletak positibotzat jo du agerraldia: «Alderdi politiko guztiek elkartasuna eta babesa adierazi digute; Bilduren kasuan, foru aldundiarekin bilera eskatuko dutela esan digute, eta EAJren kasuan, Jaurilaritzaren Industria sailarekin hitz egingo dutela dauden aukeren gainean esan dute».



PEDRAM YAZDANI

Agurtzane Belaunzaran ◉ Kazetaria eta bidaiaria

Asiako Ekialde Urrunean bost hilabeteko bidaia egin berri du kazetari berrobitarrak; istorio bitxiak bizitu ditu, eta horiek erreportajeen bitartez kontatzeko aukera ere izan du.

«Mementoa eta egunak erabat bizitzeak bizirik sentiarazten nau»

Iñigo Terradillos Berrobi

Pasa den urteko azarotik martxora bitarte Asia hegoekialdean zehar bidaiatu du Agurtzane Belaunzarane (Berrobi, 1979). Lagun argazkilaria batekin Filipinak, Indonesia, Singapur, Thailandia, Laos eta Myanmarren zein baino zein istorio ikusgarriagoak ezagutu eta bizitu ditu, eta ondoren kontatzeko aukera ere izan du erreportajeen bitartez.

Zein izan da azken bidaia honen helburua?

Ni kazetaria naiz, eta nire laguna argazkilaria den heinean, istorioak bilatzea izan dugu helburu bidaia honetan. Bidaiari ekiterako jorratu nahi genituen gai batzuk

argi genituen, eta beste batzuk ginen lurraldean topatu ditugu.

Filipinetan, esaterako hilerri batean bizi diren herritarrekin egon zineten.

Manila hiriburua kanpoaldeko Navotas hiriko kanposantu batean egon ginen. Bertan herritar ugari bizi dira, eta hamar bat egunez egon ginen beraiekin. Handik Filipinetako hegoaldera jaitsi ginen, Mindanao irlara. Musulmanen eta gobernu zentralaren artean 40 urteko gerra zibila bizitu ostean, iragan urteko urrian sinatu zuten bake akordioa bertan. Dena den, gizarte osoan erroturiko gorrotoa nabari da. Musulmanak han bizi ziren espainiar katolikoak iritsi baino lehen, eta baztertuak sentitu dira. Galdutako es-

kubideak eta lurak errekupeatzea exijitzen dute. Hori guztia gertutik bizitu duen misiolari espainiar batekin egoteko aukera izan genuen. Bi istorio hauen inguruko erreportajeak egin genituen, eta *Argia* aldizkarian argitaratu dituzte.

Ze istoriorekin egin zenuten topo indonesian?

Bajao etniako itsasoko nomadekin egon ginen han. Arrantza tradizionala egiten duen etnia da, baina txinatarrak sartzearen ondorioz arrantza sistema aldatu beharra izan dute. Urez inguraturik bizi dira, eta euren bizimoduaren inguruan ere erreportajea egina dugu, argazki ikusgarriez lagundurik.

Askotariko istorioak, beraz.

Laosen zonalde turistikoak ezagutu genituen, ez genuen bestelako istorio berezirik topatu. Myanmar, berriz, Bangkokren erosi genituen bizikletekin gurutzatu genuen. Bertakoa izan zen, Indonesiakoarekin batera, esperientziarik onena.

Aldez aurretik prestaturiko bidaia izan al da?

Dokumentaturik, hau da, jorratu nahi genituen gaien inguruan informaturik joan ginen. Filipinetako Manila hiriko hilerriaren egoeraren inguruan, esaterako, irakurri genuen, eta hura jorratzeko asmoz joan ginen, baina, han ez genuen inolako kontakturik. Pixkanaka bertakoekin kon-

fiantza hartuz joan ginen, oso ondo hartu gintuzten, eta euren egoera azaldu ziguten eta bertatik bertara ezagutu genuen. Bestalde, Mindanao irlako misiolariarekin, bidaia hasi aurretik harremanetan jarri nintzen, eta hara iristean berarekin egotekotan geratu nintzen. Asmo eta ideia batzuekin joan ginen, baina,

«Asiak maitemindu egin nau, kontraste handiko lurraldea da, eta lasaia, gainera»

bestelakoan, abentura bidaia izan da. Ez genekien iritsi arte zer topatuko genuen. Lurralde bakoitzean zenbat denbora egongo ginen ere lotu gabe genuen.

Zer azpimarratuko zenuke bost hilabete hauetaz?

Gizakia edozein egoeratan bizi dela ikusi dut, hilerri batean, zabor tartean, urez inguratutako espazioan... Gu baino gauza askoz ere gutxiagorekin bizi da jende asko, eta sormenerako duen gaitasuna ere azpimarratuko nuke. Jendearen berotasuna eta esku-zabalatasuna, Myanmarren, bereziki, nabarmenduko nuke.

Azken bi bidaietan Asian izan zara.

Asia ezagutzeko mordo falta zait oraindik. Lehengo urte hasieran joan nintzen Asiara estreinakoz, eta berriro errepikatu dut azken bidaietan. Maitemindu egin nau, kontraste handiko lurraldea da, eta lasaia, gainera.

Denbora luzeko bidaia asko egindakoa zara. Bidaiatzea behar bat bihurtu al da zure bizitzan?

Hemen eguneroko zurrunbilan sartuta gaude, astebukaera noiz iritsiko, Aste Santuko oporrak, udakoak, Gabonetakoak... Beti etorkizunari begira, orainaz ahaztuta. Badirudi gure egunerokoa ez dugula gustuko. Bidaiatzen duzunean, denboraren perzeptzioa galtzen duzu eta unea eta egunak erabat bizitzen dituzu. Bizirik horrek sentiarazten nau.

Zer ikasi duzu bidaia hauekin?

Gutxiagorekin bizitzen. 30 litroko motxilan bi galtza eta bi kamisetekin urte erdia pasatzen. Gauza materialez desegiten ikasi dut. Eta jendearengandik ere asko ikasi dut.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK

Galtzaurdi euskara taldea

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amezketak.** Amezketa Men-di Astearren barruan, afaria izango da Zazpi Itturri elkartearen. 20:00etan elkartuko dira, eta afaria Nikok alaitua izango da.

■ **Amasa-Villabona / Zizurkil.** Arropa birziklatua egiten ikaste-ko ikastaroa antolatu dute bi udalek. Izena hilaren 30a bitar-tean eman daiteke, eta ikastaroa maiatzaren 6tik 24ra bitarte izango da 17:00etatik 20:00etara.

■ **Ibarra.** Txiribitu Aisialdi talde-ak antolatuta, 18:00etan, Jon Magic magoa izango da Ibarra-ko kultur etxean.

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** *Hitzak* antzezlan-a izango da, Hika taldearen esku-tik, 22:30ean, Leidor aretoan. Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pinedo eta Jabi Barandia-ran izango dira aktoreak.

MUSIKA

■ **Anoeta.** Anoetako Itzuli ta-bernan Andoni Tolosa *Morau* hernaniarrak kontzertua eska-iniko du. Emanaldia 23:00etan hasiko da, eta doakoa izango da. Euskal musikaren errepasoa egingo du 1961etik 1990era.

■ **Tolosa.** Desastrozombies eta Samesugas taldeen kontzertua izango da, Bonbereneako ohol-tza gainean. 22:30ean hasiko da, eta sarrera 8 euro ordaindu beharko da.

BIHAR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Amasa-Villabonako Sortuk bere burua aurkeztuko du, 12:00etan. Amasako Kultur Etxean egingo dute ekitaldi xume bat.

■ **Amezketak.** Amezketa Men-di Astearren barruan, 19:00etan, *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia izango da, kultur etxean. Besteak beste, bertsoa, musika eta poesia izango ditu ardatz.

■ **Asteasu.** Matxintxulo Gazte-txearen lehen urteurren festa izango da egun osoan: 14:30ean, bertso bazkaria Unai Mendizabal eta Adur Gorostidi bertsolariekin, Erretore etxean. 18:00etan, Erromeria herriko trikitilariekin Gaztetxean, eta ondoren, kalejira herriko taber-netan zehar. Arratsaldean zehar, aizkolari txapelketa izango da pilotalekuan. Eta 23:00eta-tik aurrera, Gorkore, Euskalyp-

tus eta Ingo al deu? taldeen kontzertuak gaztetxean.

■ **Ibarra.** Txiribitu Aisialdi talde-ak antolatuta, 20. urteurrena ospatzeko egun osoko festa izango da. 08:00etan dianaren-kin hasiko dira. 09:30ean, men-di irteera egingo dute, eta hasie-ra eta bukaera Ibarra-ko plazan izango da, eta 14:30ean, bazka-ria izango da herriko plazan (eguraldi txarra eginez gero, ki-roldegian). 19:00etan, Dinbi Danba perkusio taldearen emanaldia izango da.

■ **Irura.** Kirol Astearren barruan, 10:30etik aurrera olinpiada he-rrikoia izango da. Kirolen oste-an, bazkaria egingo dute, eta arratsaldean jolasak eta poteoa izango da.

■ **Tolosa.** Tourette sindromea dutenen aldeko elkartean bazkaria izango da, Usabalan.

■ **Tolosa.** II. Errepublikaren 82. urteurrena ospatzeko,

12:00etan, udaletxek bilkura aretoan, *Memoriaren izenak* li-buruarren gaztelarazko bertso-aren aurkezpena egingo du Mi-kel Errazkin anoetarrek. Ondoren, udaletxeko toki nabarmen batean estalkia kenduko zaio plakari. Oroigarrian, diktadurak kargugabetutako udal korpora-zioari omenaldia egiten zaio. Errepublikarren legekortasuna aldarrikatu nahi da.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Siroka eta Norte Apa-che taldeen kontzertua izango da Bonberenean, 22:30etik aurrera. Sarrera, 5 euro.

ZINEMA

■ **Amasa-Villabona.** Gurea zi-neman, *Los amantes pasajeros* filma ikusteko aukera izango da, 22:00etan.

■ **Tolosa.** Leidorren 19:30ean eta 22:30ean, *Searching sugar man* filma jatorrizko bertsoan ikusteko aukera izango da, gaz-telazko azpigituluekin.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santa-maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Beteku.** Carrillo, A. Kale Nagu-sia, 5. Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San martin, 5. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Beteku.** Carrillo, A. Kale Nagu-sia, 5. Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San martin, 5. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-koa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa-nen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Zure ongizatea zaintzeko masajea

GERNIKA ESKU TEKNIKA ZENTROA
 Eriabarrena, 1
 GERNIKA 48300 - BIZKAIA
 Tel.: 94-646 60 75 / 672 180 022
 info@masajesgernika.com
 www.masajesgernika.com

Prezioa **19€**

www.mauka.eu **berria** taldea

Agurrak



Zorionak Alex eta Leire!

Udaberriko lore bat bezala etorri zaigu. Egun zoriontsuak ditugu, Alaitz ongi etorri! Aitona Julian eta amona M^ñ Jesus.



Zorionak!

Xuban Seoane. Bihar 8 urte. Zure gurasoen eta anaiaren partetik zorionak.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZAREN harpidedun apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI
Basoa banaketak eskainitako 3 ardo botila



eta

Harpidedun guztien artean

Areta Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
 902 82 02 01
 harpidetza@hitza.info